



Kutxa didaktikoa Elikadura

Elikadura izeneko kutxak elikagaiak eraldatzeko edo kontserbatzeko objektuak biltzen ditu. Hain urrun ez dagoen garai batera garamatzate, non suarekin janaria prestatzen zen eta apenas zegoen marka komertzialik ez eta supermerkatuak ere.

Gazta moldea

Hustutako zurezko moldea, barruan «matoia» sartzeko erabiltzen dena eta oinarrian zuloak dituena seruma ateratzeko. Moldetik atera ondoren, gazta biribila eta azaleko marrazkiarekin ateratzen da.





Esneontzia

Esnea gorde eta garraiatzeko ontzia, tapa ia hermetikoarekin eta heldulekuarekin.

Hoztegia

Tamaina txikiko armairu moduko bat, taula eta listoizko egitura duena, bilbe meheko sare metalikoarekin itxia. Alde batetik, bandak ditu eta, bestetik, ixteko kisketa bat. Elikagaiak kontserbatzeko eta parasitoen (saguak, intsektuak, etab.) eskura ez geratzeko balio du.



Kafe-errota

Kaxa honek goiko aldean tapa dauka, non biraderaz eragiten den mekanismo xehatzailea dagoen, kafe-aleak ehotzen eta txikitzen dituena; kafe ehoa tiraderatxoan erori eta handik ateratzen da infusio bidez kontsumitzeko.

Kafea alea eta mordoka saltzen zen.



Txikitzeko makina

Biradera bidez eskuz eragindako txikitzeko makina. Barruan haragia, barazkiak, tuberkuluak, zerealak eta abar txikitzeko erabiltzen den burdinazko marraza dauka.

Mahaian akoplatzeko baraila du, biraderari eragitean ez mugitzeko.



Hiruzangoa

Burdina forjatuzko euskarria, zartaginak, kazolak, eltzeak eta beste ontzi batzuk sutondora jarri eta hurbiltzeko balio duena, janaria prestatu eta berotu ahal izateko.

Iragazkidun ontzia

Erabilitako olio biltzeko ontzia. Erabilitako olio xaboia egiteko berrerabiltzen zen. Xaboia soda kaustikoarekin, urarekin eta olioarekin egiten da. Belar usaintsuak ere gehitu dakizkioke, hala nola izpilikua, ezkaia, erromeroa, etab.





Txurrogilea

Frijitu aurretik txurroen masa sartzeko erreminta. Izar-forma ematea ahalbidetzen du, enboloa bularraren kontra estutuz, heldulekuetatik eskuakin eutsiz. Txurroak jaiegunetarako egiten ziren.

Sagar erregailua

Sagarrak zuzenean sutegian erretzeko hiru zulo dituen burdin esmaltatuko txapazko tresna. Zartagin gisa ere erabiltzen zen onddo-nahaskia edo antzeko errezetak egiteko.



Txokolatea txikitzeko tresna

Eusteko kirtena duen zurezko erreminta, erdian laban kirtendun moduko bat duena. Txokolatea zatitzeko eta birrintzeko balio du. Behin birrinduta, alde estuenetik txokolate-ontzira botatzen zen.